

HERRIKO MUTILA

LEHEN PARTEA

I

(Jendea etortzen den denbora guzian, alboka joka da. Gero, Herriko Mutilak atabala joz, huna zer oihukatzen duen):

HERRIKO MUTILA: «Jaun andereak, Jaun andereak: Jakin arazten dautzuegu "EZPONDA" deitu etxaldea salgei dagola. Nork edo nork hortaz jabetzeko xederik balu, lehen bai lehen Herriko etxerat ager dadila han ukanen ditu behar diren xehetasunak.»

*(solas hauek, Herriko Mutilak hiruzpalau aldiz errepikatuko ditu)
(Ixiltzen denean, Manez Ezponda,
beste zoko batetarik agertzen da, astoa kraxturik
atxikiz eta bere buruarekin gora mintzo:)*

MANEZ: Gureak egin dik to; gureak egin dik. Fuxitsean aspaldi banakian, hola finituko zela. Bainan ez nian uste tenore hau hoin laster etorriko zela. A, ez, *(geldi)* Hemen gaituk to orai, hi eta ni, biak berdin asto! bainan hi, untsa futitzen haiz eni gertatzen zautanaz; zaldare on bat dukan ber, putarrak gora igortzen ahalko dituk... Nik aldiz, ez diat naski, hementik aintzina, putar haundirik botako... Nahiz orai arte ere frango umila egona naizen... Umilegi hain segur. Zer nahi duk? aita bizi zeno, harek zian manatzen eta harek bakarrik. Eta hil zenean, jadanik hantxetan harat, joana nintian to... Bainan ama hor nian oraino. Beharrik! Orai ama ere joan zaitak... «*Ezponda-n*» ez duk geiago *nehor* gelditzen, ni baizik... eta hi. Deus baino hobe. Zorigaitzez hitarik ere behexi beharko diat. Ezin dezakeiat bertzerik egin. Gaizoa! gaizo puska! ez zakiat konprenituko naukan, bainan adi nezak halere: ene sort-etxearen aldeat hutsik ikusteak izitzen naik, *izitzen!* Alta ez nauk beldurri hoitarik, ba pentsa! gerla ezagutu diat, bainan hau gerla baino piesagoa duk! gerlan bederen nahas mahas denak elgarrekin gintian, hil ala bizi... Hemen, auzokoak eta lagunak urrun ditiat, heriotzea aldiz hurbil. Aita arnak bizi zireno ez nauk ohartu ni ere ez nindagola beti hogoi urtetan... Hogoi urte... Badiaguk to, geroztik zonbeit eta zonbeit antzara ferraturik! Baxan ni ferrarik gabe gelditu. Eta uste baino goizago higatu. Zer ariko naiz beraz etxe huts hortan, bakarrik? Kanpoko eta barneko lanetan beti bakarrik? zendako eta norentzat? Hoinbeste, hoinbeste lan ibili ondoan, bizi gusian leherriteko arizan ondoan, horra orai zertaratua naizen. Segitzeko beldur, *beldur* ata ez kapable. Beraz, beraz hobe diat hemendik joaitea. Etxea salduko diat, *salduko* eta joanen nauk itsu-mandoka, joanen nauk, nork daki norat!...

II (1)

BI EROSLE

*(Taula gain batean, bi gizon agertzen dira.
Bat larga-bixtekin so eginez, galtza gorritan,*

*dantzan ari da bertsua bota ondoan,
«Satan dantza» emanen du.)*

(airea: xorteko kantuarena)

BERTSULARIA:

DENAK BEGIRAN DAUDE ORAIN «EZPONDARI»
IDURI ARRANOAK ARDI ERIARI.
TRATULARI LEHENA DUGU «GALTXAGORRI»
HORREN NAUSI HAUNDIA PASISEN DA BIZI,
HAREK EROSTEN BADU, BILDUKO DU... SARI!

*(Galtxagorrik bere dantza bururtu ondoan jalgitzen da.
Erdikal dago bakarrik, taula gainean.)*

BERTSULARIA:

DELAKOTZ MAKINUNA, DUELAKOTZ AHAL
KABALEKIN GIZONAK BERDIN LEZAZKE SAL.
LUR EROSTEN HASIA SOSAK EZ DEZAN GAL.
BERRIAK HARTARAINO UKAN BAITU HEGAL
XEDE ONEKIN HEMEN DAUKAGU «ERDIKAL».

*(Erdikal-ek Manez Ezponda ikusten duelarik
mail batez apaltzen da eta horrekin solastatzen)*

II (2)

ERDIKAL - MANEZ EZPONDA

*(Erdikal Jauna, Kantonamenduko laborari makiñuna, alegia deuses,
ikuska dabila eta bat batean Manez Ezpondarekin junt egiten du:)*

ERDIKAL: Ari karaskan?

MANEZ: Arizan behar hori, arizan behar.

ERDIKAL: Aroa alde duzu...

MANEZ: Aroa bai. Aroa aski balitz gauzen ongi itzulikarazteko... Gogoia ere behar ginuke...
Bainan... »

ERDIKAL: Egia, egia, holako malurra ukan ondoan... Gaizo emaztea, zoin fite joan den
azkenian;...

MANEZ: Zuk errazu... Alta azken egunetan hobekitzerat egina zuen eta medikuak berak
errana zaukun... beharbada... bainan, zer nahi duzu, nediku horiek ere
tronpatzen baitira...

ERDIKAL: Adina hor baitzuen, adin haundia...

MANEZ: Adina bai eta nolako bizia. *Nolako bizia*. Xehetasunetan sartzen bagine baginuke
aratsalde guziarena... Eta orai joana, ori. Joana.

ERDIKAL: Bakarrik gelditzen zira beraz, kaxko huntan?

MANEZ: Bakar bakarrik. Zernahi gerta ere, bakar bakarrik.

ERDIKAL: Gaizo gizona, ez zinuen segur hori merezi... bainan zer egin? zer egin? Eta ez zira
bakarra. Zu iduriak, ehunka ta ehunka badira eta futxo nehork ez jakin nola joka
ateka hortarik ateratzeko...

MANEZ: Hori, nihaurok ere hadakit. Eta jakin zazu zerbait, zerbait gostatzen zautala. Azken
ilabete hauetan, gauaz ez dut begirik hesten.

ERDIKAL: Alta etxalde planttakoa duzu...

MANEZ: Familia baten haztekoa... (*bere astoari*) bainan ez baitut nik orai familiarik...

ERDIKAL: Frango patar halere...

MANEZ: Ba ba, bainan nik ez ditut senditzen ere...

ERDIKAL: Eta zer bixta...

MANEZ: Bai zer bixta. (*ahapetik bere astoari*) Bereziki begiak ez zauzkularik nigarrez ari.

ERDIKAL: Auzoak ez ditutzu hain urrun... zonbeit eskukaldi emaiten ahalko dauzkitzute.

MANEZ: Eta nola! Biziki ontsa akomahatzen gira. (*astoari*): zonbeit eskukaldiren beharra baizik ez baginu... (*gora*) Auzokoak hor dira bai hor dira, bainan auzoan...

ERDIKAL: Egia. Egia haundia. Nik garbiki erranen dautzut, ene ustea segurik, biziki ontsa egin zinezakela zure etxaldearen *uztea*. Badakit, ez dela errex, bainan hortan arrazoin zinuke. Errotik! zenbat eta zenbat ez ditut ikusten, han eta hemen arrunt tematuak, salbaiak bezala, bakar-bakarrik lanaen ari, beren etxaldea ezin kudeatuz. Iduri eta egungo egunean gizon batak, berak etxalde bat kudea dezakeen!...

Ez, ez, egungo egunean behar du oraiko biziari jarraiki edo hanbat gaisto bestenaz. Egungo egunean, zure kasuan diren donadoek behar luzkete beren etxaldeak lehen bai lehen saldu. Zeren orai ez da lehenago bezala gero! Oraiko gobernuak, eta ez nola nahiko gobernuak, ahal dituen guziak egiten ditu zuen alde ota horrela xahartze goxo-goxo baten pasatzeko dretxoa ardietsiko duzue. Beraz zendako ea balia?

MANEZ: Zuk errazu... Funtsean ez dugu ez ebatsia ukanen...

ERDIKAL: Etxaldea saldu-ta gero, sos meta bat bazinuke eta orduan trankil-trankila «zahar-etxe» batean sartzen ahalko zira. Nahi ditutzun guziak ukanen ditutzu; zinez errege bat bezala artatuko zaituzte.

MANEZ: Alabainan diruarekin zer ez da ukaiten ahal... (*astoari*) (*apalik*) bizi guzian hemen egon ondoan, ez diat uste ni, han, arrotz hoi en artean aise laketuko naizela... deus egin gabe, aderat alfer...

ERDIKAL: Etxe horiek xoragarriak dira! Horietan sartzea, *parabisuan* sartzea bezala da. Harrituko zira zuhaur. Harrituko, ... eta segidan laketuko.

MANEZ: Ba badakizu, parabisuan sartzeko ez naiz bate prosatua... Bainan egia erran, nik ere holako zerbeiti pentsatua nuen bai. Halere ez da erretx ori, tipust-tapastea gauza guzien aldatzea. Ez da erretx.

ERDIKAL: Konprenitzen zaitut; zinez konprenitzen. Beharbada ausart batentzat hartuko nauzu, bainan onhartzen baduzu segurik, lagundu nahi zinduzket.

MANEZ: O ba gogotik!

ERDIKAL: Zahar etxe horietako baten buruzagia lagun haundia dut. Biziki gizon seriosa. Hor sartzeko paperen egiten lagunduko zaitut, zeren ez deusendako zernahi galdatzen bait dautzute. Bestalde, edozoin gauzarentzat argitasun beharretan bazine, jin gostuan one ikustera.

MANEZ: Mileskor, Milesker ori. Eta etxaldea?...

ERDIKAL: Ez zitela etxaldeaz kexa! egungo egunean erosleak, dotzenan hamahiru baditutzu... Eta kabalentzat, usaian bezala akomea gintazke...

MANEZ: Hobe segur, bainan, bidearen gainean egoiteko orde, zauri etxeraino, aratsaldeko askaria elgarrekin eginen dugu... doidoia ogi-ta gasna poxi bat, arno xorta batekin...

ERDIKAL: Egun ez. Presatua naiz. Bainan beste aldi batez gogotik... zaude, zaude helduden astean ori, ortziralean bostak irian libro naiz...

MANEZ: Igurikatuko zaitut. Zauri gostuan... zu bezalako gizonekin, mintza daiteke bederen. Zauri.

ERDIKAL: Ez adiorik. (*Erdikal badoa*)

(*urrunago denean*) Beste etxalde batez aberastuko nauk naski... laster eta prezio onean...

MANEZ: (*bere baitan*) zein gizon onak badiren bestenaz mundu huntan. Beharrik funtsean...

III (2)
GAZTEAK ELGARREKIN
PEIO - KOXE - REMI - LEON

PEIO: Nik uste diat, zinez nahi ukan balute, gure rugbilariek irabaziko zutela.
LEON: Bakea emak hortik mutikoa... Besteak aintzinean biziki azkarago zitian.
PEIO: Aintzinean beharbada bai, bainan gureak ere ez dituk txarrak gero! eta jakin-zak aurten urrun joanen direla!
REMI: Hola segituz segurik, beharbada urrun joanen dituk, bainan ez gora!
PEIO: Aldi bat galdu dutelakoan, ez duk ez etsitzekorik...
LEON: Aldi ba t baizik ez balitz...
KOXE: Ez balute hoinbeste besta egiten, eta hoinbeste mozkor biltzen... behar bada igandetan trenpu onean eta zaluhago litazkek...
PEIO: Zerbait erraiten ahal duk to hik! Joanden igandian haukan arrailarekin.
KOXE: Ba bainan nik ez diat urtean bat baizik biltzen gero!
PEIO: Urteak biziki laburrak duzkek hirekin!
LEON: Zuekin ez ditaitek solasta ere /... Rugbiaz ari gaituk eta ziek segidan beste zerbaitetarar ba zoazte... funtsean konprenitzekoa duk... Berdin rugbian ez duzue deus ezagutzen.
PEIO: Hik erakutsiko naski?
LEON: Eta zendako ez?
KOXE: Ni segurik rugbiaz ontsa futitzen nuk. Miletan nahiago diat pilota partida bat ikusi ez zinez eta zerri ihalozkatza bat balon txar baten ondotik.
PEIO: Bai eta nik biak gogotik bazterrerat utz nezazkek nexka eder batekin egoiteko.
LEON: Egoitea pitsik ez duk. Nik geiago ere nahi nitek...
PEIO: Ez dik sekulan gormantegi izan behar, omen... Ni, hastean, gutiz kontent nitakek... Gero ikusiko...
LEON: Nexkatoekin ere rugbian bezala duk... Essai, essai,... eta azkenean la partie est gagnée...
KOXE: Dourrientxoa, hik, hola mintzatzeko esperientzia haundia badukek, ez?
LEON: Rugbilari ohia nuk gero!
KOXE: Eta gizon gai ohia ere... zer gertatu zauk?
LEON: L'essai n'a pas été transformé... to... .

III (2)
KATTALIN - MIRENTXU - MAITE

KATTALIN: Ni enoatzen naun herri huntan... Astearen erdian deus ez dun jostatzeko.
MIRENTXU: Alta igandetan ere, balaz kanpo, ez dinagun gauza haundirik...
MAITE: Dena ore on!
KATTALIN: Bai, dena ere on... Bainan ni segurik ez nun batere gustatzen... Hemengo mutikook halako trukesa aire bat baditen...
MAITE: Zer uste dun beste eskualdetan ez direla berdin?
KATTALIN: Beste eskualdetan ez zakinat xuxen nolakoak diren bainan lehen xixtan segurik iduri liken neskatoentzar arta gehiago ba dutela. Hemengoak arrunt basak ditun...
MIRENTXU: Ha hori bai! Ez dine deuseri kasurik egiten. Nik, joan den egunean «pantalun» berriak ezarri ditudalarik...
MAITE: «Pantalun» berriak? Zoin?...
MIRENTXU: Delako briolet largo largo hek... Ez haiz orroitzen?...
MAITE: Ha bai... Biziki ontsa juhan zauzkinan...

MIRENTXU: He be... uste dun mutiko bakar batek berak zerbait erran dautala? Ba pentsa! Ez ditun ohartu ere... Alta *espres* erosiak nintinan!

KATTALIN: Mutiko horiek ez ditun behar bada ohartu bainan ba ditun ohartu direnak... Eta nola!

MIRENTXU: Bai. bazakinat. Betiko berak. Atso zahar kalakari debru horiek... Nihaurek entzun ditinat biga nitaz mintzo.

KATTALIN: Zer zioten?

MIRENTXU: Zer zioten? Gauza pollitak segur! Batek zionan: «Juhan zakon, no, astoari xokoleta!» eta besteak segituz: Gure alaba balitz segurik, guk mahastian ozar ginezaken, mamu gisa, xorien iziarazteko»!

KATTALIN eta MAITE: Atso tzarrak!

MIRENTXU: Zer uste dute ala, berak itsusiak direlakoan guk oro itsusi behar dugula izan? Tronpatzen ditun!

KATTALIN: Eta ez guti!

MAITE: Eni berriz ba dakizue joan den igandean zer gertatu zautan?

MIRENTXU: Zer ote?

MAITE: Balean nintunan... Hiruzpalau gomita errefusatuak. Azkenean bat jin zaitan. Itxuraz ez hain gaizki. Egia erraiteko, mutiko ederra. Bainan dantzan hasi orduko ezpainetan ausikika hasi zaitan...

KATTALIN: Ausikika?

MAITE: Ausikika bai ausikika! Zortzi egun hartan jatekoa balu bezala! Arrunt basa. Eta Rikard usain batekin... Trenputxartzekoa... Ez nakinan zer egin ez nakinan eta horra nun bi minutaren buruko erraiten dautan ota nahi nuenez segitu... Ota nahi nuenez segitu! Nik ezetz, ezetz. Orduan, klak, han utzi nin, dantzarien erdian, bakarrik, eta beste neska baten gomitatza joan dun gosturik hoberenean... Transitua nintunan, transitua!

MIRENTXU: Mutiko horiek gure sendimenduez ontsa futitzen ditun. Beren plazerra baizik ez dine xekutzen.

KATTALIN: Nik bakantza denboran ezagutu nuena segurik arras goxoa eta fina zunan.

MAITE: Zoin? Perpignan-eko hura?

MIRENTXU: Perpignan-eko hura bai. Robert. Zer dantzaria! Loria zinan harekin edozoin dantzaren emaita... Eta eleketaria!... Ezin ixildua! Eta jakin-zan inteligenta zela gero! Jo Dassin ota Ringo-ren kantu guziak gogoz bazazkinan! Eta bestenak ere frango plantan. Harekin bederen mintza ahal zitakenan...

MAITE: Beti Perpignan-en dagon?

KATTALIN: Ez. Ez. Orai Parisera joana dun.

MIRENTXU: Eta izkiriartzen daun?

KATTALIN: Izkiriartzen daitan bai. Bainan harek letra bat igortzeko denboran, nik hiru igortzen daizkonat! Hain dinat maite...

MAITE: Zendako ez haiz Parisera joaiten, han aldeat elgarrekin zintazkete...

KATTALIN: Ez dun errex partitza. Ai'ameri zer konda nezake? Funtsean ez nezaketen utz!

MAITE: Ni halere, hiru partez gehiago mugi nintakon. Ala... beldur haiz Robert-ek beste bat ba duela...

KATTALIN: Ba pentsa! Eta bestenaz ere beti errana dun bat gal eta hamar harrapa! Bereziki hiri haundi horietan! Eta Raymonde-k berak —alta ezdun gu bezain pollita eta hardita— izkiriartzen zaitanan, Parisen gau guziz ateratzen dela eta kasik aldi oroz norbaitek gomitatzen duela ostatuan afaltzerat. Egia daiteken, zeren hunat heldu delarik, arrunt akitua dun...

MIRENTXU: Bixtan dun egia dela. Duda-muda izpirik gabe. Eta haren beztimenda ikusi duzue? Harritzekoa ba dun... Harritzekoa. Eta haren zapatak? Zer zapatak... Hemengo zoko hotan ez dun holakorik hatxomaiten... Alta ni xekutzen nun... bainan debaldetan... Ez dun hatxemaiten.

MAITE: Eta azkazailak... Azkazailak perde zintatun zitinan...

(Eta neskatoak tokiz aldatzen dira eta emeki-emeki mutikoeri buruz doatzi, Kattalin mintzo dela):

- KATTALIN:** Guk ere berdin egin ginezaken... Eta jakin zan ba ginakikela laster hiritartzen... Goiz guziz mainua hartu-ta, bizpahirur oren ba ginizkon makillatzeko. Eta gero, nahi bezala bezti: goizetan berdin galtzetan, arratsaldetan zaia labur arin bat eta gauaz aldiz lurrerainoko arropa beltza. Urreria nun nahitik dilindan. Eta auto bat, auto luze-luze bat, Amerikano hoitarik... Zigarreta hoberenak pipa ginezazken, edari finenak hurrupa... Eta gau guzian, gizon eder aberatsekin besta egin ginezaken goiz-alde arte... Beti lehen modan gintazken edo hobeki erraiteko moda guk egin ginezaken. Ikusten nuzue, ni, ikusten nuzue (*andere haundi jestu batzu egiten ditu*), xakur ttipi bat besotan... Parisetik hunarat heldu... Neska guziak gutaz jelos litazken, denak harrituak bizian zoin ontsa erreusitu dugun eta guk hemengo jendeari ez ginezaken kasurik ere egin!...
- MAITE:** (*mutikoak erhiz erakutsiz*): Bai, bainan zer erran lezakete hortxetako horiek... Zer erran lezakete?

III (3)

(Donadoa pasatzerat heldu).

Donadoa ostatutik jalgitzen da eta mutiko gazteekin junt egiten du.
Goroxago neskatoak ere hurbilduko dira eta elgarrekin solasta bitez.
MANEZ. MUTIKO GAZTEAK.

- KOXE:** Astoa nun duzu, Manez?
- REMI:** Ba, egun ez dik ez asto beharrik naski, bildua duen pottoka aski zakok!
- MANEZ:** Egonki...
- PEIO:** Ba... eta zu ibilki?
- MANEZ:** Ibilki, ba, ba, ibilki... Ibiltzea bederen ba diaguk...
- PEIO:** Hori bera ez da gaizki...
- MANEZ:** Ez, ez Ez ez. Eta zuek zer ari zirezte, haize pikatzen? Edo ihizirat jinak berdin?
- KOXE:** Ihiziko sasoina pasatua da...
- MANEZ:** Ba... ba dakik bai zoin ihiziz mintzo naizen... Funtsean ez duk ihizia eskas... ba dituk segur pollitak...
- KOXE:** Zer duzu zuk ere halakoeri behatzen? Berantxko da ez, orai?...
- MANEZ:** Ba, naski ba. Nahiz... (*geldi*). Bainan kasu emazue gero zuok ere... Kasu emazue... Gazte zirezteno mugitu behar baita... Gero borantegi duk...
- REMI:** Zuk ere bestendako ba dakizu ba ori...
- MANEZ:** Ezin uka... ezin uka...
- KOXE:** Bainan berdin bizi zira, ez?
- MANEZ:** Berdin bizi... berdin bizi... Bizi behar, to. . bizi behar...

(orduan nexkatxak hurbiltzen dira).

- MANEZ:** Baniak orai... Ni baino konpainia hobea heldu zaitzue eta... ez adiorik
- DENOK:** Bai, bestaldi bat artio...

DONADOA- MUTIKOAK- NEXKATXAK

- KATTALIN:** Zer zaitugu guk haizatzen?
- MANEZ:** Ba pentsa... Ez, ez... Bainan zaharrok ez baitute deus ikustekorik gazteen aferetan...

MAITE: Hala diote... bainan hori egia denez ez dakit...
KOXE: Gure gatik segurik egoiten ahal zira, gustu gustian... Ez dugu segur sekreturik gordetzeko...
KATTALIN: Ha hori ez... Bainan rugbiaz aparte... ez dute gauza haundirik kondatzeko...
KOXE: Has hadi kitxikan hi, debru napurra!
KATTALIN: Ez diat egia dena baizik erraiten...
KOXE: Errazu Manez, hau segurik zurekin eremaiten ahal duzu... antxiak zainduko dauzkitzu...
MANEZ: Ba, ez diat ez antxien zaintzeko nehor haundiren beharrik; nahiago nikek norbait salda kozina on baten egiteko... Bainan bego hortan. Kotxino, utzi behar zaituztet... Ez adiorik... eta egon perestuki.
DENEK: Agur Manez...

(Manoz ba doa).

MUTIKOAK. NESKATXAK (gogoetak).

MIRENTXU: Eta zer diozue?
MUTIKOAK: Ontsa; eta zuok?..
KATTALIN: Gaizki bagine ez gintazkek hemen...
PEIO: Gaizo Manez...
REMI: Hik errak... Ez ditakek goxo etxean bakar bakarrik izaitea...
LEON: Laspost behi ba omen ditik jadanik saldiak Erdikal makinunari.
REMI: Eta etxaldea bera, naski...
KATTALIN: Debrientxua, zer arrakasta duguna...
MIRENTXU: Aldi bat ikusten eta, ez ahal gaituk denbora guzian gizon zahar hortaz mintzatuko?..
PEIO: Nahitaz gizon zahar horren kasuak denak hunkitzen gaitin.
KATTALIN: Ah bon? Ni segurik ez biziki...
PEIO: Ba, hik, denak airerat hartzen ditun!
KATTALIN: Milesker! Hasian hasi, errak ments bat naizela ere...
PEIO: Zartako bat bil beldur nintaken...
KATTALIN: Ja, ja, hitzendako ez diat zartakorik emaiten. Bainan justu txarrendako bai. Orroitzen haiz... A bai, orai konprenitzen diat zendako zirezten Manez Ezpondaz mintzo, hura bezala baitzirezte: jadanik DONADO! Eta donado geldituko, ez baizirezte hobeki jokutzen.
LEON: Ba, jokatzear ez gitun ez kexu ari, jokatzekoa ba ginu...
KATTALIN: Alta ez duzue jokatzekorik ukanen ez balinbaduzue neskatoentzat kontsiderazione gehiago, beti ziriko piltzar batzuentzat hartzen ba gaituzue! Zuek ere ez duzue nehor hatxemanen!
MIRENTXU: Hortan hirekin ados naun!
MAITE: Ni ere bai!
PEIO: Gu, ez gintunan arras hortaz ari...
KATTALIN: Eta zer zinioton bada?
PEIO: Ginionan, oraiko ustez segurik, Manez-en etxalde hori joanen dela... *joanen!* Etxalde hortaz, hain segur, batere horren beharrik ez duen bat jabetuko dela... erran nahi baita edozein aberats. Dirua den ber... denak, libro, denak paso! eta guk... lur horien zinezko beharra dugunek, ezin eros, lurraren prezioa goregi delakoan, ezin onartua... Bainan, zuek, aberatsak galantak hatxemaiten dituzue ez? Ez dun hala? Alta, lagunak ba ditiagun, segur galdu nahi ez ditugunak eta laborantzari esker, herrian berean geldi litazkenak... Bainan beharbada zuentzat sobera basak...

MIRENTXU: Ezpondarat joaiteko ez dik ez fin-fin hoitarik izan behar...

LEON: Ezponda, Ezponda dun. Bainan zuek ikus zer bilaka araziko duzuen: basurde zilo ala uso ohandze?...

(ota orduan mutikoak kantuz hasten dira.)

DENEK: Urtxo xuria errazu, norat joaiten ziren zu (berriz)

KOXE: Hiria eder, herria hobe, uzten dutenak zoin itsu

LEON: Hiri haundirat airatu orde, hemen egon behar duzu

PEIO: Sortu zaituen euskaldun lurra doi bat maitatzen ba duzu

DENEK: Gaurko zure ostatu, gure etxean ba duzu (berriz).

III (4)

NEXKATXEN MIN ETA GUTIZIAK
KATTALIN - MIRENTXU - MAITE)

KATTALIN: Gaurko zure ostatu gure etxean baduzu... poxi bat kitzikatuz, ez ditun ez halere, guk uste dugun bezain basak...

MIRENTXU: Gauza batek harritu nin, lehen aldikotz erran daikune hemen behar dugula gelditu, gure beharra ba dutela...

KATTALIN: Erran, erran... kantatu...

MAITE: Berdin din bai.

KATTALIN: Ez arras. Bainan hastapen batendako ez dun gaizki... halere diotelarik: Gaurko zure ostatu gure etxean baduzu... gau batentzat baizik ez balitz! Bainan holako etxe batean sartu eta gero, ez haiz geiago ateratzen ahal! Urteak eta urteak; funtsean bizi guziko estokatua haiz! nik segurik ez dinat gure amaren zorte bera jasan nahi. Ha ez!

MAITE: Nik ere ez, laborantxa ofizio zikina dun... beti saltsa eta sekulan minuta bat ez hatsaren hartzeko! nik zerbait garbi nahi niken eta ez sobera akigarri. Bizi bat baizik ez ukanki ta ez din segur balio esklaboak bezala ar gaiten!

KATTALIN: Gure ama ikusi eta harritua egoiten nun... hoinbeste haur ukanik oraino ere zer lanak eta lanak ez ditu ibiltzen... funtsean etxe guzia bere bizkar din; eta uste dun gure aita zerbaiti ohartzen dela? ba pentsa! hura ere lan eta lan, eta etxeratu ta oihu zonbeit, bainan solasa labur!

MIRENTXU: Horrek nin bada izitzen. Beldur nun oxtiko mutiko horiek ere ez ote diren gure aitak bezala izanen eta gu beti ziriko piltzar, guk senarrari, familiari denak eman, eta hoiek guri DEUS eta arras guti...

KATTALIN: Hortakotz bada, hemen kokatzeko partez nahi niken hiri horietarat itzuli bat egin. Ikusi. Jastatu. Gero ere beti aski goiz izanen dun berriz itzultzeko.

MIRENTXU: Egia dion; esperientzia on batek ez daukun kalterik ekarriko.

MAITE: Ni aldiz, hiritat joaiteak ez nain hainbeste agradatzen... nahiago niken hemen berian gelditu.

KATTALIN: Hiretako, no!

MAITE: Iduritzen zaitan hemen ere bizi gaitekela. Bainan ez gauzak orai bezala atxikiz. *Hautsi* eta firrindika bota behar ditzen zaharkeriak ainitz badun gure herri eta etxetan... eta uste dinat guri dela hastera, entseetzen...

KATTALIN: Hire amentsek, Maite, halako ungarri usain bat baditen...

MAITE: Ungarrian erne hazietarik sortzen ditun landare ederrenak...

(GALTXAGORRI AGERTZEN)

*(Galtxagorri, aberatsen taula gainean agertzen da.
Nexkak deitzen ditu. Kattalin eta Mirentxu badoatzi.)*

Maite aldiz kantuz hasten da:

«Ez nau izitzen ez lurrak, are gutiago mendi gainak
Maite bat gatik pasa nezazke gauak eta ilunak
Baserriaren gozoa luke, ni hartu nahi nauenak...

(Galtxagorrik bi nexkak dantza araziko ditu, airoski.)

BIGARREN PARTEA

IV

(EZ NORNAHIRI SAL)

PEIO - AITA - AMA

AMA: «Oherat joan gintian to... zer behar dut, hiretzat berriz afariaren muntatzen hasi?

PEIO: Ez du balio ez...

AMA: Ez haiza tenoreko biltzen ahal besteak bezala? Errak, ez nauk orai jeikia gero, ni ere...

PEIO: Ez dut erraiten...

AITA: Oraino noizian behin balitz bederen, bainan azken aste hauetan frango ardura gertatzen zauk gauza bera... zer duk hor gaindi?

PEIO: Ba ez gauza haundirik ez. Lagun batzu ikusteko.

AITA: Eta lagun batzu ikusi behar dituzkalakoan daukuk beranta bilarazten... Nik uste nian bai gauza seriozago baten gatik zela...

PEIO: Gauza seriozak aipatzen ditugu bai lagunokin!...

AITA: Segur, nahi nitek jakin, zer nahasten duzuon hor gaindi...

AMA: Eta «Ezponda»z, entzun duka zerbait? Bi erosle badirela diotek. Bat, Pariseko norbait haundi eta bestea, eskualde huntako makiñun bat...

PEIO: Hala diote bai.

AITA: Hobe!

PEIO: Hobe, hobe...

AITA: Zer, ez zauka ontsa?

PEIO: Ez!

AITA: Nolaz ez? Eroslea den ber, kontent izan behar litakek, ez? Segur nuk Manez lorietan dagola...

PEIO: Lorietan? Nola erran dezakozu hori? Lorietan zintake zu, etxea, zure sor etxea saldu behar bazinu?

AITA: Harena eta gurea, ez duk berdin...

PEIO: Egia. Auzogoen penak biziki aiseago jasanak dira...

AITA: Ez duk bate ere konprenitzen zer errango dutan.

PEIO: Zure erranak ez ditut behar bada ontsa konprenitzen, bainan Manez Ezpondari gertatzen zaiona segurik garbi ikusten dut.

AMA: Bainan Peio, bi erosle ukan ditzan, gabea baino hobeago duk, ez?

AITA: Eta nola!

PEIO: Hoberena izanen zen, lehenik, Manezek ez balu bere etxaldearen saltze beharrik ukan...

AITA: Bazakian zer igurikatzen zuen.

PEIO: Manez-ek etxea sal dezan, hemendik joan dadin, horiek guziek ez dautzute deus egiten? Ez zira hunkia?

AITA: Hunkia? Gu miserian ginelarik, ez dituk biziki hunkiak izan to Ezpondakoak, gure laguntzerat jiteko! Bakotxak bere aldi! Eta jakin-zak; hori erosiko duena ez dela orai arte zirenak baino pisagoa izanen!

PEIO: Beraz, zuri; etxalde hori nornahiri saldua izan dadin berdin zaitzu?

AITA: Ba, ba, nornahiri. Guretzat igual dik. Igual!

PEIO: Ez! ez da igual. Etxe hori, Manez-ek behar luke atxiki!

AITA: Berantegi duk orai.

PEIO: Edo bederen ez nornahiri saldu. Etxalde horrek laborarien eskuetan gelditu behar luke. Lur horien beharra badugu. Orai arte aipatu bi erosleak ez ginuzke onartu behar. Huts haundia litake. Guretzat kaltegarri.

AITA: Bainan, bainan mutikoa, zer derasak?

PEIO: Paristar aberats haundiak zer egin lezake etxalde hortarik? Udako pausa eta goxa leku bat? eta gero denbora guzian hutsa egoiteko? Ez ote duzue bada uste, jadanik, aski etxe huts badela hemen gaindi? Edo behar bada, zaldiak ezar lezazke; nork daki, berdin, basurde hazkuntza egin?...

AITA: Hori bere egitekoa ukanen dik.

PEIO: Bai, eta gero egitekoa aldiz, besteek egin pasuen hestea...

AMA: Ez duk errana Paristarrak erosiko duela...

PEIO: Galtxagorrik dio baietz.

AITA: Zer du Galtxagorrik aferan hortan ikusteko?

PEIO: Ez ahal dakizu?

AITA: Ez!

PEIO: Galtxagorri da Pariseko aberats horren eskualde huntako mutila. Funtsean, ez batena bakarrik. Jakin orduko hemen zerbait salgai dagoela segidan Parisera ba doa. Eta aferan trenkatzen delarik, «komisionea» hunkitzen du eta hola, dakizuenaz untsaxko bizi da, debru krapauta!

AMA: Bakotxak bere offizio...

PEIO: Ez baitute ahatik denek berdin balio! Bainan Paristarrak ez erosirik oro, Erdikal makiñun tzar hori hor dabil, aiduru. Joan den egunean Manez Ezponda-rekin ikusia dut.

AITA: Zer duk horren kontra?

PEIO: Zer dutan? Zuharek ez ote dakizu, tripustel horrek zenbat eta zenbat laborari ez dituen izorratu eta oraino ere izorratzen? Nola uste duzu bada hoin denbora laburrez aberastu dela?

AITA: Lanean ari duk...

PEIO: Eta gu, ez gira lanean ari? Ez ote ditugu egun guzietz hamar-hamabi oren egiton? Nun dugu araberako saria?

AMA: Makiñunek ebatsia, omen...

PEIO: Bai, makiñun eta haundi-mandiek ebatsia! eta onart zinezakete zuek pitrail horrek etxalde hori eros dezan besteen gainera?! *EZ* Ezpondak ez du ez Paristar aberats okituari, ez eta makiñun ohoinari *joan behar* Ezponda, laborarien eskutan, gure eskutan atxiki behar dugu, nohori saltzen utzi gabe!

AITA: Konprenitzen diat bai orai zendako haizen hoin ardura etxetik joaiten... Konprenitzen diat! Ai urdea! Sartua, sartua hi ere saltsa pollitean! Ez haiz ahalge?

PEIO: Zertaz ahalge? zer diozu?

AITA: Zer diotan? Badakik bai zer diotan. Ez nian beste beldurrik. Oraiko gazteak zerbait badira bai! Jainkoak dakik zer zozokeriak pasatsen ahal zauzkitzuen burutik! Eta hi ere justu justua hor gertatu delako «lagunekin»! Lagunak dituzka lagunak, zuen onetan ez zazuela sobera amets egin! ez zazuela burua sobera bero!

PEIO: Bainan Aita, gure ideiak ez dira batere beste mundukoak; guk nahi duguna da gure lagun batek har dezan «Ezponda» eta laborantza segi. Ez dugu beste deus galdegiten...

AITA: Ez beste deus galdeiten? hori gero ikusiko. Zeren hastea erretx duk bainan ondorioak laster heldu dituk eta geienetan txarrak! Zer uste duk ala aberats horien kontra zerbait egiten ahal dugula, guk? Gaixo inoxenta... Aberatsak ezin hunkituak dituk. Eta sekulan horien kontra hire burua agertzen baduk, galdua haiz. Galdua. Jainkoak begira gaitzala.

AMA: O, bai, Peio, kasu-emak; Jainkoaz, kasu emak. Familia xingle bat gaituk... Ez dezakeguk politikarik egin guk. Ez ginikek nehorekin samurtu behar... Ez duk mementoa. Otoi, Peio...

PEIO: Bainan zendako oihesten zirezte? Zendako bat batean beldur hori? Laborari etxe batek, laborari eskutan egon behar duela erraiteak ba ote du zerbait eskandalagarririk?

AITA: Ez, ez; bainan guk ez diaguk afera horietan sudurrik sartu behar... Akomea ditela... Ez duk hori gure egitekoa...

PEIO: Halere gure auzoan laborari bat izan dadin nahiago zinuke ezinez eta edozoin arrotz edo laborantxaz untsa futitzen den norbait?

AITA: Guk, bakea behar diaguk. Bakea. Eta bakea ukanen dioguk geldi-geldia eta ixil-ixila egonez. Hori izan duk beti ene joka moldea. Eta agian hirea ere izanen. Bestenez ez gaituk sekulan deusetara helduko. Ordrea eta diziplina beharrezkoak dituk eta sobora libertatek ez dik deus onik ekartzen.

PEIO: Horiek guziak milaldiz entzunak ditugu.

AITA: Ez likek biziki iduri!

PEIO: Betiko hitzak dira, bainan ez giten debaldetan mintza. Gure herria bizi dadin nahi duzu halere... Eta bizitzekotz jendeek hemen behar dute gelditu eta herriko harat-hunatetan parte hartu...

AITA: Guk zer dakigu mutikoa, eta zer egin dezakegu? Guk behar diagu jarraiki. Jarraiki merari eta kontseiluari, jarraiki apezari, jarraiki gure ongia bilatzen duten Frantziako aintzindariari. Hori duk gure bidea, egiazko bidea. Eta segur nuk bide horrek zerura eramaiten duela...

PEIO: Zerua. Egia. Zeru bat ere ba omen da.

AMA: Haurra! zer derasak? Zeru bat badela duda ote hezake? Bainan beraz denetaz dudatzen duk?

PEIO: Bai denetaz dudatzen dut! Ene begion aintzinean ikusten dutan errealitate latzaz salbu!

V (BESTA EGUN BATEZ)

*(Herriko mutila atabala joz, plaza erdira agertzen da bere aldean jaun auzapeza daukala frantses xingolarekin. Orduan; zoko batzuetarik, multxoka ahal bezain bat jende bil dadila, ostatu aintzinerari. Herriko bestak ditugu. Ttunttun, txistu, akordeon eta irrintzin, denak bozkarioan daude.)
(Auzapeza mintzo)*

AUZAPEZA: Herritar maiteak eta bereziki gazte maiteak; pentsatzen dut gure herriko bestak ahal bezain plantan joanen direla, guziak zinez jostatuko zireztela: Omone onean eta bat bestearen errespetuan; eta agian ez dela nahaskeria edo itsuskeriarik izanen. Bestalde, gain-gainetik artamendatzen dauzkitzuet bakantza denboran gure herrian ditugun kanpotiarrak. Segur jende estimagarriak dira eta nahi nuke Euskal-Herriaz eta Euskaldunetaz orroitzapen ezin ahantzakor bat atxik dezaten. Beraz egizue ahalik eta hobekiena. Eta luzatu gabe, besta on denori. BESTA ON eta orai arte bezala gauden denak eskuz esku!

*(H. Mutilak, atabala joz, auzapeza aberatsen taula gainera segitzen du.
Musikariok «dantza jauzi» airea has bezate. Horren ondotik, Herriko mutila
ikusliaren ondora doa eta hiruzpalau aldiz oihuten du:)*

HERRIKO MUTILA: Jaun Andre ikuslariak; denak gomit zirezte besta huntan parte hartzerat.
Hamar minutaz; deskantsatzen ahal zirezte; egizue plazer zaitzuen.

*(Dantza jauzien ondotik «fandangoak». Sokolari zonbeitek konfetiak botatuko
dituzte... Bi mutiko gazte ikusliarren ordian dira, xahako haundi batekin. Beste
batzuek, ikusliarrak gomitatuko dituzte dantzan artzerat.
Fandangoen ondotik slow bat izanen da: «Beste batekila» deitu kantuarekin.
Denbora guzian «anbiantza» gaitza beharrezkoa da. Otoi, ahal bezen bat jendek
parte har dezatela. Bulta baten buruan, Herriko mutilak berriz oihuten du:)*

HERRIKO MUTILA: Eta orai kasu! kasu! Bertsulariak entzunen dituzue... Bertsulariak!

*(jendea bere jar lekura doa.
Jokolariak «ostatu» sahetsetan daude, zutik,
beste batzu «ostatu» aintzinean, jarririk.
«Ostatua» deitu taula gainean daude:
zerbitzaria, Manez, Peio eta Koxe.)*

MANEZ - PEIO - KOXE

KOXE: Hea ba, zonbeit bertsu entzuten ahalko ditugunez.

MANEZ: Ez nuk ez ni egundaino bertsulari hoitarik izan... Bainan zuekin naizenaz geroz, zer
nahi duk, gaztetzen nauk ni ere; eta egia erraiteko zuek bezalako konpañia biziki
maite diat.

KOXE: Hobe sogur! eta orai, bertsutan has gaiten... Zuk, Manez, eginen duzu Parisera doan
neska gazte baten sanfreta, zendako ez duen hemen gelditu nahi eta zerk
liluratzen duen; eta hik aldiz, Peio, arrapostu bat bezala eginez, kondatuko
dauzkuk ere donado baten goiti-beheitiak.

MANEZ:

Hogoi urteko neskatxa bat naiz eta herritik banoa
Ez baita segur bizi tokia Euskal Herriko zokoa
Mundutik urrun, trixte ta ilun, iduri harpe ziloa
Alde guzitan oihu bera da: etsimenduzko orroa!

PEIO:

Ez da zokoa bainan xokoa: Zoin eder eta zoin garbi
Jelus direnak izan litazke hamahirutan hamabi...
Oihan altzotan hosto bat xori, pentzetan belar eta lili
Sasuen pean dantza jauzika mila lapin eta orbi.

MANEZ:

Zuen bizia lana bakarrik lehert ta zapart eginik
Hartarik kanpo emazte batek ez du bertze gauza onik
Beti haur ta haur sabel barnean, kezka ta nigar lehenik
Lur huntan dugun itzuliaz dut bertze esperantza bat nik.

PEIO:

Oi! lan horentzat bazaizte ainitz zaiztenak itsu ta elkor
Bera ez dela egiten segur nik ere derautzut aitor
Lehenago-re haurrik ez balitz gaur ez zinen izanen hor
Haurrak metaka dituztenetan ez da soberakin nehor!

MANEZ:

Baserri hotan bizi dagona gazterik da zahartua
Higaduraz du bere bizitza asko urtez laburtua.
Iduri luke arbol eder bat bainan erroa moztua
Ez doa bada heriotzea higaduratik sortua?

PEIO:

Lazgarri diren solas horiek bihotzean hunki naute
Higaduraren erresuman ni urtek sartua binaute.
Horren beldurra ukana gatik nere etxea dut maite...
Aitak utzia atxikiko dut azken hatsa bota artej

MANEZ:

Lore guziak usainda eta aira iduri eleak...
Ta diozue: «Alferrak batzu, ergelak bertzeak»...
Bular ixterrez bertzerik ez du zuendako emazteak
Zuek ez zaizte gizonak bainan oihaneko bas-urdeak!

PEIO:

Segur ez gira zure begitan ez gora ez eta eder
Halere dautzut hau erran behar: ez zaite fida itxurer!
Urde guziak ez dira basak, artatzaileari esker...
Aise tutzue buruak garbi, harriak botatuz bester!

MANEZ:

Leku pollitak dira hirian, ostatuak ta zinemak
Egun laburrak lanean eta haurrak nahi ditugunak.
Ez da zahartzen ez da higatzen, beti gazte ta lerdanak...
Ongi emanak, goxoak, han bizi diren gizonak.

PEIO:

Urtxo gaixoa habil hirirat bi hegalak zabaldurik
Bainan ahalaz herriaz orroit balinbahaiz dolaturik.
Hemen nindaizken, bihotza ubel, begiak aldiz bustirik
Erranen denat, ator gu ganat eta ez konda gezurrik...

MANEZ:

Noiz eta nola ohartu gabe donado gertatu nintzen,
Bizi itsu bat laguntzat hartuz urteak zauzkit pasatzen.
Xaharrek naute utzia eta gaztiekin naute trufatzen
Nago zertako mundu huntarat egun batez sortu naizen!

PEIO:

Biziak badu bere mamia nik bakarrik dut azala
Gogorik gabe lanean ari galdua baitut ahala
Halarik ere ez dut hil nahi; Jainkoak entzun nezala
Segituko dut nere bidea, zakur galduak bezala!...

GAZTEAK ETA MANEZ

KOXE: Errazu Manez, Peiok erran dituenak egiak zauzkitzia?

MANEZ: Egiak? Bai bai eta nola! eta ba nitek oraindik ainitz erraiteko. Bainan gu, ixilik egoiten ikasiak baigira...

REMI: Hori da ba kaltegarri: ixilik egoitea. Akort eta apart, besteak ziona. Bakotxak bere minak beretako atxikiz. Bainan ez ote duzu uste zahar eta gazte xumeen artean kurutzamendu geiago baginu, elgar hobeki konpreni ginezakeela?

MANEZ: Nik zer dakit mutikoa?... nik fitsik ez zakiat... lanaz bestalde, zertaz mintza gaitzke?

REMI: Zertaz mintza?... zuhaurek zinion baduzula oraindik ainitz erraiteko. Eta ez daukuzu deus erraiten...

MANEZ: Gaztoak zirezte zuek... Zoazte jostatzerat... Ez zazuela enekin denborarik gal. Orai liberti zaitezte... Egun txarrak aski goiz jinen dituk berdin...

PEIO: Beraz zure biziak ez zira hain kontent?

MANEZ: Kontent? Orai arte ez nian denborarik ere pentsatzeko heian ene biziak kontent nintzan ala ez. Orai haatik bertzerik duk...

PEIO: Eta zer diozu?

MANEZ: Zer diotan? Bizi itsu bat pasatu dutala, to! Bizi itsu bat, jakin gabe zendako bizi nintzan... Bainan zer duzue ene hola kitzikatzeko, zendako egiten dauzkatzue galde hok guziak... Gazte zirezte zuek...

REMI: Gazte gira bai mementoan... Bainan ez betirako! Eta nahi ginuke zinez zure berri jakin... zeren zorigaitzez, gauzak ez dira segur erraiten den bezainbat aldatzen? Alta beharra balukete!...

MANEZ: Lehen aldikotz entzuten ditiat horrelako hitzak... Ez zirezte beraz nik uste bezain ergelak... hobe funtsean... Bainan elgarrekin solastatzeak eta elgar konprenitzeak zer ondorio ekarriko dauku?

REMI: Hain segur zuk uste duzun baino hobea. Zeren ororen buru bizi bera dugu. Buru hauste bertsuak eta elgarren artean trenkatu behar ditugunak...

*(orduan aberatsen taula-gaina jendez betetzen da.
Solasean hasiko direlarik, gazteak hoieri buruz doatzi.)*

PEIO: Xo, ixo orai. Bisita bada gain hortan... Ha, ha... zer jalgio ote daukute?...

Le maire fait les présentations.

LE MAIRE: Madame Erdikal...

LA MARQUISE: Chère amie.

LE MAIRE: ... et Monsieur, notre dynamique commerçant.

LA MARQUISE: Très honorée, vraiment.

LE MAIRE: Ma chère épouse.

LA MARQUISE: Mes félicitations, Madame.

LE MAIRE: Madame la marquise qui nous vient de Paris.

TOUS: Nous vous attendions, Madame la Marquise.

LE MAIRE: En effet, le plaisir de nous réunir aujourd'hui est l'aboutissement des tractations et démarches que j'ai entreprises à votre demande pour vous rendre acquéreurs de la propriété EZPONDA. Voici Mme la Marquise, voici Mr Erdikal, les promesses de vente que j'ai obtenues de l'actuel propriétaire (*ils les exhibent*).
Mme la Marquise, je reste à votre entière disposition pour matérialiser l'achat de la demeure dite Ezponda et de ses proches dépendances.

LA MARQUISE: Je tiens à régler cette affaire dans les plus brefs délais.

LE MAIRE: Comme il vous plaira, Mme la marquise. Quant à vous, Mr Erdikal et ami de longue date, comme convenu, vous prendrez possession des parcelles C 129, C 129, etc... .

soit 11 h 35 a 86 ca de terrains cultivables

8 h = = de landes

et 24 ares de bois.

propriété qui deviendra effective à la signature des actes.

Et bien voilà, nous avons les premiers atouts en main pour entamer une fructueuse collaboration.

(la Mairesse fait passer le plateau des coupes de champagne.)

Les toasts:

LA MARQUISE: Pour un placement sûr de nos capitaux et leur heureuse rotation spéculative.

TOUS: Vive la spéculation (*et ils boivent*).

LA MARQUISE: Mes félicitations, Monsieur le Maire de la commune, conseiller général de canton, député de la circonscription, futur sénateur et... ministrable, croyez en mon petit doigt. Votre réussite et votre respectabilité auprès de la population est absolument remarquable. Mais livrez-nous donc votre secret.

LE MAIRE: *(en claquant les doigts):* Galtxagorri mon ami, voulez-vous recenser pour Mme la Marquise tous les «services» que nous rendons.

GALTXAGORRI: *(en les désignant parmi les acteurs et les spectateurs)*

Exemption du service militaire: 1, 2, 9; 12

P.V annulés: 30f, 50f, 120f

P.V de douane: 1 million et demi.

Pensions, bourses scolaires, retraites vieillesse, subventions diverses.

TOUS: Bravo. Quel mérite. Bravo.

ERDIKAL: Pour que ni les biens de production, ni les biens de consommation ne nous échappent.

TOUS: Vive la monopolisation des richesses

LA MARQUISE: nous sommes en parfaite communion. Mr Erdikal, manager du bétail et du tourisme, P.D.G du béton et du goudron, que les dieux vous accompagnent.

ERDIKAL: Galtxagorri, mon ami, montrez nos miracles...

(Galtxagorri sort des objets d'une boîte magique que lui ont apportée deux anges qui font des bulles de savon)

Etxe bat

biga, en rente viagère

hiru, d'accord avec la SAFER

bost

Pizinak, han eta hemen, nun nahi

Bideak, Iratin gaindi

LE MAIRE: Pour que notre hospitalité soit et bien protégée.

TOUS: Vive le tourisme, vive l'armée.

(Galtxagorri ordonne autour de lui des jeunes filles avec des arceaux, protège les spectateurs par un cordon de gendarmes et danse un solonnel aurreku)

AFARIAREN ONDOTIK

PEIO: Ikusten duzia orai nortsu diren horiek?

MANEZ: Nortsu diren? Ai urdeak! Ai urdeak!

REMI: Horientzat ez da dirua baizik konda! dirua, dirua beti dirua!...

MANEZ: Bai eta ni diru tzar horrekin bildu nitek...

Jakin izan banu... jakin izan banu... bainan, etxerat jin zaiztak, dena elasturi, dena kontseilu on, denek lagundu nahi nitizteian... orai konprenitzen diat bai, horiek eskaini dautaten laguntza ez zela ene izorratzeko baizik! ai urdeak! Jakin izan banu, ez nian sekulan diru zikin horren truk ene etxea utziko! sekulan! bainan besterik egiten ahal nuena?

LEON: Guk nolazpeit atxikiko zaitugu. Gurekin egonen zira. Eta zure etxea gurea balitz bezala zainduko dugu!

(Orduan, «ostatu» aintzinean berriz bertsutan hasten dira.)

GAZTEAK:

Lurra guretzat behar ginuke laneko tresna delakotz

Gure bizia akabo laike hori behin kendu geroz.

Kapitalixtek nola nahika dukete sal eta eros
"«Spéculation» horrentzat lurra menekoa dutelakotz!

MANEZ:

Miul aldaxka pollit bat nuen sagar ondo baten puntan
Bere itzalaz ontzen lagunduz zer sagarrak izan duztan
Bainan geroztik sagarrak gabe nago mila gogoetan
Nolaz miulak sagartzea daut hil bere aztaparretan.

GAZTEAK:

Geroarentzait behar laikena egin hautua
Batek denentzat denek herrikotz agertuz beren botua
Ez eta norbait lillura askoz botzak bildurik sartua
Bere intresak zaindu nahian ongi eginez tratua.

MANEZ:

Magoek zuten izar bat eta guk biziaren lana
Maingua dagon ardia ere bertzen ondotik badoa
Gidari nor den xuxen ez dakit itsu-mandoka banoa
Uste dut aita artalde hunek artzain daukala otsoa.

GAZTEAK:

Biziak gutan dauka sortzea mundu guziak badaki
Emaztea da bizi ontzaile ta hortaz nork du urriki?
Nahi ala ez gizon legeak onhartu behar umilki
Zoin ederrago eginez hoiek plazerrean ta goxoki.

MANEZ:

Elorri xuri sortua nintzan sasu baten pean hitsik
Iduri eta bizia ere sobera zitzaitan kasik
Martxoko hormak lorea deraut ereman goizean goizik
Ta geroztik naiz bakar bakarrik, ez baitut ziztrorik baizik!

GAZTEAK:

Lanen fruituak batetaratzuz denen keskak ongi lantuz
Berdintasunez, laguntasunez ta elgar errespetatzuz
Eskualduna den nortasun hori nola irabaz erakuts
Eskualdun xumeek Eskualdunentzat gure Euskadi altxatuz!

MANEZ:

Zonbat ostiko, gure etxea lurrerat botatu nahiz
Erortzearen auzo izanik xutitu nahi du berriz
Iguzki alde begiran dago gorri berde ta xuriz
Mundu guziko iraultzaileri atea zabal idekiz.

GAZTEAK - DONADOA... (Hautua)

PEIO: Manez; garbiki erranen dautzugu: ez dugu nahi hemendik joan zaiten!

REMI: Ez! ez zaitela joan!

MANEZ: Bainan mutikoa, paperrak, paperrak eginak ditiat...

LEON: Paperrak bai... bainan azken hitza ez duzu eta ez dugu oraino errana...

KOXE: Sekulan onartzen baduzu joaitea, zure etxaldea ere aberats sorjes horieri joanen da.

Eta guk hori ez dezakegu onets... Hortakotz bada gurekin atxiki nahi zaitugu...

MANEZ: Atxiki, atxiki, biziki eder duk... bainan ni orai zahartia nauk... eta jaun meraren
aintzinean paperra siñatua diat... Ez duk errex... Ez zakiat zer egin...

PEIO: Zer egin? Hemendik aintzina eginen dituzun guziak elgarrekin eginen ditugu eta
ikusiko duzu ez zaitzula dolutuko...

MANEZ: Ene adinean halere, ene buruaren hola erakustea ez duk biziki pollit, to!

REMI: Pollit ala ez pollit, ontsa futitzen gira. Guk nahi duguna da gure herri hau bizi dadin eta ez desertu bat bilaka.

LEON: Arrazoina duk... Zeren hola segituz haundi-maundi horiek denetaz jabetuko dituk, jende xehea ohartu gabe ere. Hortakotz bada, ez diaguk onartu behar dirua izan dadin hemen nagusi!

PEIO: Alta ez balinbagira orai berean mugitzen hala izanen duk. Beraz ez diaguk denborarik galtzeko.

MANEZ: Bainan zer egingo duzue bada? izitzen hasia bezala nauk... ez nitek nahi ene gatik saltsarik izan dadin...

REMI: Saltsa muntatzailea ez zira zu, ez eta gu, Manez; eta hori badakizu. Saltsa muntatzaileak, oxtian entzun eta ikusi ditugun «presuna ohoragarri» horiek dira. Guk ez dugu tratu karkularik kasko gibelean. Horiek aldiz bai! Funtsean, ez dira diru tratuentzat baizik bizi.

MANEZ: Bai eta ni horiekin tratuan sartua... Eta zuen erranak aldiz ez arras- arras konprenitzen...

LEON: Nik ere ez dut lehen alditik konprenitu. Bainan luzaz eta luzaz solastatu gira zure kasua dela medio eta orai nik ere gauzak hobeki ikusten ditut...

MANEZ: Eta?

LEON: Oraindik dudan gaude. Egia erran, ez gira denak arras gogo bereko, bainan auzia gaur trenkatuko dugu...

KOXE: Nik uste diat, Manez gutarik norbaitek behar lukeela etxean hartu, eta gero Ezpondako lurra partikatzen ahal ginizkek auzokoen artean...

PEIO: Ni ez nauk hain ados...

KOXE: Zer gatik ez? Gure etxaldeak ttipixkoak dituk eta emendatzen ahal bagintu, uste diat orduan *salbu* gintazkela. Hori duk *baitezpadakoena*.

MANEZ: Bainan zer derasazue mutikoak, zer derasazue? Nik etxea eta lurra salduak bezala ditiat.... Salduak bezala...

PEIO: Ez zaitela kexa, Manez, ez zaitela kexa. Eginen dugu bai zerbait...

KOXE: Gure etxaldeak haundituz alabainan, tresna berriak erosten ahalko ginizkek, etxe barnea gain-gainetik munta ginezakek eta horela emazte bat ere aiseago bil...

PEIO: Bai, bai... Erdikal ere hola hola hasi zian to... Hemendik poxi bat emenda ta emenda, horra orai zertaratua den; eta ez gelditzekotan entzun dugunaz.

KOXE: Ez duk konparazionerik ere... Nik laspost hektararen beharra baizik ez nitek...

PEIO: Nik ere laspost hektara gehiagorekin hobeki itzulika nintakek, hori segur. Bainan ikusi behar duguna duk *premiatsuena* zer den. Lurra ala gizona? Eta eni iduritzen zautak gizona dela!

REMI: Eni ere bai! bizia lehenik eta gero lurra.

PEIO: Eta beraz Manez-ek bere sort-etxean gelditu behar dik. Eta Ezpondaren segida gazte batek hartu...

MANEZ: Hok guziak lehenago jakin banintu, nik... gauzak bestela joanen zitian. Bainan paperrak, paperrak eginak ditiat. Xahu gaituk.

PEIO: Onart zinezake zuk kuple gazte bat zure etxean?... Onart zinezake?...

MANEZ: Ez duk posible mutikoa... errana deat...

LEON: Aintzinean bezala segitzen ahal zinuka eta dautzut zure etxean balitakela bizi... Zuk behar duzuna Manez: familia bat da, ez eta «xahar-etxe» bateko lau murrue arteko bakartasun ezin jasan hilkorra.

PEIO: Bazautzu Manez, orai, sekulan aita izan gabe, aitatxi behar duzula?!

MANEZ: Ametsak dituk horiek guziak, ametsak... Sobera edor litakek... Baina paperrak, paperrak... merak eta kontseiluak zer pentsatuko dute? Ez duk egiten den gauza. Afera hau gaizki finituko duk. Paperrak hor dituk lekuko...

REMI: Paperrak dituzia, paperrak?... aberats horiek nolazpeit eskuratu paperrak *erreko* ditugu.

MANEZ: Erreko! Jainko ona!

REMI: Bai erreko! eta paperren partez, guk, *xatarrak* eskainiko...

PEIO: Gure eskaintza onartzen duzia Manez?

KOXE: Eskaintza, eskaintza; orai arte segurik ez diozkagu hitzak baizik eskaintzen. Zeren guk guziek gure etxaldeak baditiaguk eta beraz Ezpondaren segida nork har lezake? Nork? Hortakotz erraiten nian lurren partikatzea hobe zela...

LEON: Ez gaiten berriz hortaz has. Errana diaguk lurra ez dela aski, bizia ere behar dugula, *bizia*, herriko bizia, haurren eta gazteñoen irria, emazten grazia, hots gizon bizi bat eraman, ez eta basurde bihurtu!...

KOXE: Predikuak biziki eder zaiztak eni... Baina hori ez duk aski. Orai duk egiazko hautuaren mementoa. Norbait badea Ezpondarat joan laitekenik?

MANEZ: Bainan, bainan... Erdikal makiñuna jinen zautalarik zer erranen diot? Ez, ez... Hobe diaguk huntan uztea... hobe diaguk...

PEIO: Huntan uztea? bainan hau ez da hastapen bat baizik. Eta jakin zazu hasian hasi ez girela hola-holaka geldituko. Ha ez! Janfutre horiek aski lan tzar eginik badute jadanik. Orai aski!

KOXE: Eta beraz... badea norbait?

LEON: Errak Remi, hiretzat ez litakek ontsa?

REMI: Egia erran, gu, etxean biga bagaituk bai... Maite duk zaharrena eta. Zer dion hik Maite?

MAITE: Nik, etxean egin nahi nitek bai... Orai arte hola aipatua ginian...

REMI: Segur ontsa zaitan. Laborantxa gustatzen zaun, hori bazakinat; eta kapable haizela are jada frogatua dun...

MAITE: Hik ere, orai, Ezpondara joaita onartuz, hire geroa segurtatua huke...

LEON: Zer diok beraz?

REMI: Ago ixtant bat mutikoa. Ez duk nola-nahika hartzen den deliberoa...

LEON: Egia, bainan jakin-zak beti hor ukanen gaitukala eta elgar tinki atxikiko dugula. Hemendik aintzina gauzak arrunt aldatuko ditiaguk eta nola!

REMI: Beraz ene *BAIA* emaiten diat. Manezek onartzen badu segurik; ni Ezpondarat joaiteko prest nauk.

PEIO: Eta zuk Manez, zer diozu? Kontent zira ez?

MANEZ: Kontent? Kontent bai; bainan paper zikin horiek... ez balire lekuko? Paper zikin horiek... Ni ez nauk usatua holako gauza baten egiten... Hitza eman eta gero ondotik jan... Nik orai arte ez diat ixtoriotik ukan... Orai aldiz, denak nitaz mintzatuko dituk, denen aho mihitan izanen nauk... Eta nork daki, behar bada afera tribunalean azarriko ditek... kasetak ere nitaz mintzatuko dituk... ez banaute oraino preso sartzen... Jainkoak begira! ni preso. Pollita nitek to hori. Pollita nitek, orai zahartzean barna...

PEIO: Ez zazula odol gaixtorik egin; Manez! borrokatuko beharko dugu, hori bai, bainan ikusiko duzu irabaziko dugula! eta zure zahartzea ez duzu ez preso, ez «zahar-etxe» batean pasatuko bainan bai sortzen ikusi zaituen etxean! Hori untsa zautzia?

MANEZ: Hori litakek, biziko ene presentik ederrena...

PEIO: Eta zueri ontsa zaitzue Remi Ezpondara joan dadin?

DENEK: Bixtan duk baietz. Eta nola!

PEIO: Eta zu Manez, Remirekin akomeatuko zira?

MANEZ: (*Remiri buruz joanez*) Haugi Remi, haugi. Ez diat gauza haundirik eskaintzeko bainan hemendik goiti, nintuen guziak uzten dezkeat... So egizak, so egizak... Bidexka lapartsu hori duk gure etxerako bidea. Astoa ere hor gaindi ditakek asun jaten ari... Eta mendi aldarmenean ikusiko duk Ezponda. Lehiu guziak kasik hetsiak dituk. Has hadi horien irekitzen, etxea iguzkiz bete eta ase dadin eta xoriak ere beren kantu xarmagarriekin berriz itzul dituen. Eta nahi baduk, haugi hire emazte gaiarekin eta laster haurrak egizkitzue, heien irri, nigar, oihu, garrasi eta jostetek gure zokoari eman dezoten bizi, eta oraiko zokoa ez dadin zoko geldi! Haugi;

nahi dukalarik haugi. Orai konprenitzen diat, orai konprenitzen diat, marbrezko banko hormatu batean pausatu miliun paketa batek ez duela *deus balio* zuek eskaintzen dautazuen zorion paregabearen aldean... (*geldi*) Bainan, bainan paperrak.. Paperrak...

LEON: Hautu hunekin denak akort girenaz geroz zure paperron ixtorioa nolazpeit trenkatuko dugu. Eta orai denak lanerat goazen, herri guziari zer gertatzen den jakinarazteko.

MANEZ: Saltsa pollitean gaituk, to!

REMI: Ba pentsa! Ikusiko duzu, laster herri guzia gure alde izanen dela... Eta denak paper txar horren kontra; aberats arbuigarri horiek aldiz debruetara igorritz!

HAUTUAREN ONDOTIK JAZAR

«Hautua» egiteko denboran, gazteek su bat piztu dute eta horren itzulian dagotzi. Bainan elkarrizketa hori bururatu bezain laster soinu bat aditzen da eta ritmoari segituz gazteak «lanean» hasten dira, jestuz.

Lau egitaldi: mekanikan joitea, traken egitea, hioen zabaltzea (*hori egiazki*) afixak eta tindaketak.

Memento berean, aberatsak berriz elgarretaratzen dira eta harrituak daude. Gero ta zuriago. Galtxagorri deitzen dute eta gero jendeen artera igortzen berri txar baten hedatzeko.

GALTXAGORRI: Kasu! kasu! gazte horiek lanjerosak dira! kasu! Enbatak igorriak dira! Komunixtak dira! kasu! gerla ekarriko dautzute! gure familiak eta gure Herria zapartaraziko dute! Guk egin «unioea» horiek hautsiko dute! ez dakite zer egiten duten! kasu! urrunetik heldu den malurra ekartzen dute! kasu! otoi kasu!

Gaztek beren lanak segitzen dute. Aberatsek aldiz «lege» liburuak hartzen bai eta «les promesses de vente». Auzapezaren andrea, arosarioa eskutan, marmaran otoitzean gora has bedi. Eta auzapeza bera, haundi haundia, populuari buruz heldu da eta huna zer dion:

AUZAPEZA: C'est intolérable. La subversion gagne notre heureuse vallée. Jusqu'à présent, le dialogue existait dans nos communes où régnait «la qualité de la vie». Et une fois de plus, je vous promets d'écouter vos revendications. Mais gare aux tentatives de soulèvement. Je vous exhorte vous qui m'avez fait confiance à ne pas vous laisser entraîner dans l'illégalité, à ne pas vous laisser influencer par des éléments incontrôlés et inconscients. Eta zuri bereziki Manez, zer dituzu jestu horiek? Nun da Eskualdunaren hitza? Zure gatik hasiak diren nahaskeria hauek ez balinbadira orai berean gelditzen, segidan deitzen ditut ordrearen atxikitze hor diren polizak. (*ixiltasun luze bat*)

Prenez vos responsabilités! (*judanik aberatsen aintzinean poliza gizonak berme daude. Auzapezak bere solasaldea bururatzen duenean, aberatseri buruz doa. Ordu berean irrintzin bat entzuten da; jendea gero ta geiago Manezen alde biltzen da eta tresna batzu —aitzur, futxin, sega— hartzen dituzte eta plazaren erdian emaiten dira. Kutxian, auzapezak manaturik poliza gizonak salbaiki populua joiten dute. Bainan emazteek, mantalet batzu jauntzirik —gordagailu bezala— tortxa batzu pizten dituzte eta aberatsen paperrak erretzen. Paperren erretzeko denboran, aberatsek lasterka ihes egiten dute eta ahal duten lekuan gordetzen dira.*)

MANEZ: Zer da aberatsen boterea, herriaren indarraren aintzinean?

GAZTE BATEK: Ikusten duzu Manez? irabazten ari gira...

MANEZ: Irabazia diaguk! zueri eta herri guziari esker, biziak herioa garraitu dik. Irabazi diaguk. Irabazi! eta nork gaitu huntan geldiaraziko?

*Orduan «Etxe sartzeko» kurrida muntatzen dute
eta denak kantuz hasten dira.*